


# POSTAZ ETORRIAK



## ANAITASUNA

Zuzendari jaunari

Lagun agurgarria:

Orain egun batzuk zoritxarrezko albiste bat etorri zitzaigun, hau da, gure lehenengo diskoan agertzen diren kantuak, Aita-semeak eta Gosetea, Información y Turismoko Gipuzkoako Delegazioak Loiolako Herri Irratian galerazi dituela eta, datu zehatzik ez badugu ere, pentsatzen dugu probintziako beste emisoretan gauza bera gertatuko dela.

Gaur egunean bizi ditugun momentutan honelako portaera bati guztiz irrazionala deritzagunez gero, eta aipatutako kantuek Información y Turismoko Ministerioaren baldintza eta zentsura guztiak sufritu dituztenez gero, zure aldizkariaren tribuna publikoa erabili nahi genuke gure eskubideak zaintzeko, bai eta gure herriaren onerako kultura herrikoi baten alde esfortzuetan dabilten beste lagunenak ere, gu bezala trantze hauetan aurkitzen direnenak. Dei honen bidez Información y Turismoko Gipuzkoako Delegazioak esplikazio bat emango digun esperantzan, gure eskerrik beroenak.

OSKORRI